AIARALDEA hemen

TASIO MARTIN ESNAOLA:
“Abentura nahi genuen, eta Zanskarren aurkitu genituen inork igo gabeko mendiak” 14-17 or.

GEHIGARRI BEREZIA:
Gabonetan Aiaraldea, kontsumitu, oparitu eta gozatzeko gida 26 or.

Frankismoaren 53 biktimari aitortza eta erreparazioa



Izan
AMURRIO
MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUAK
www.apymca.com izanamurrio@apymca.com

ESKURATU ZURE GABONETAKO LOTERIA
EL CRUCERO LOTERIAS Y APUESTAS
· TUBACEX TAYLOR 33.544
· AIALA VIDRIO (JUBILATUAK) 45.462
· BERRIAK 09.675
· AIARA SUHILTZAILEAK 76.306
· S.D. ISASI 03.358
· SAN ROQUE EGOITZA 33.576
· SIDENOR 58.402
· ABASTOS ENPARANTZA 27.756
· RAKATAPLA 19.295
· BBVA 03.734
· GLAVISTA 54.083
· GUARDIAN 87.498
· TUBOS REUNIDOS 88.090
· LAUDIOKO UDALA 09.503
· KIDER 36.498
· I.E.S. LAUDIO 04.589
· OSAKIDETZA 13.303
· GOMETEGUI 09.675
· JEZ 11.765
· FRIBASA 66.123
Karmen kalea 1, LAUDIO 94 672 00 97 loteriaselcrucero@hotmail.com @loteriaselcrucero

erreportajea

Urduñako Espetxe Zentraleko 53 biktima aurkitu dituzte hilerrian

Lorudes Harresti Aranzadi Elkarteko kidea Urduñako hilerrian aurkitutako gorpuzkiekin. **Aiaraldea.eus**

Aranzadi Zientzia Elkarteak, dozenaka boluntarioren laguntzaz, Frankismoan Urduñako Espetxe Zentralean hildako 53 biktimen gorpuzkiak deshobiratu dituzte Urduñako hilerritik. Aurkikuntza mugarri garrantzitsua da memoria historikoaren berreskurapenaren bidean.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

50 gorpuzki baino gehiago aurkitu dituzte Urduñako hilerriaren azpian lurperatua. 1939tik 1941era bitarte Urduñako Espetxe Zentralean hildako presoen gorpuak dira denak. Frankismoko kontzentrazio-esparrua egun Aintzinako Andra Maria Ikastetxea dagoen eraikinean kokatu zuen erregimen frankistak Gerra Zibila amaitu berritan. Espainiako Estatutik ekarritako preso politikoak ziren espetxean preso zeuden pertsona gehienak, asko sindikalistak edota irakasleak.

Indusketa

Aranzadi Zientzia Elkarteak bost egun eman ditu hilerrian gorpuak lurpetik ateratzen, biktimak identifikatu eta gorpuzkiak senideei entregatzeko helburuarekin. 2014an abiatutako esku-hartze arkeologikoari emango diote jarraipena. Urte horretan 14 biktimen gorputzak atera zituen hobitik zientzia elkarteak, Urduñako Espetxe Zentralean gatibu zeudela hil zirenak. 1937 eta 1941 urteen artean, 225 pertsona zendu ziren, gutxienez, Urduñan ezarritako gerrako presoen kontzentrazio-esparruan eta espetxe zentralean.

Gehienak goseteen, hotzaren, gaixotasunen eta baldintza larrien ondorioz hil ziren, Aranzadi Elkarteko kide den Paco Etxebarriak Aiaraldea Komunikabideari orduko hartan azaldu bezala.

Abenduaren 6an hasi zituzten indusketa berriak. Aranzadiko kideek lehendabiziko lurzoru geruza kendu zuten, eta lehenengo gorpuak segituan azaldu ziren. "Eskabadora sartu dutenean, berehala topatu dute lehen gorpua. Lerroka ari dira lanean, eta lehenbiziko zatian 7 gorpu atera dira. Horrela jarraituz gero, 40 hilotz inguru ager daitezke eremu honetan", azaldu zion Itziar Biguri Urduñako alkateak Aiaraldea Komunikabideari lanak hasi berritan. Aurreikusi bezala 53, lagunen gorpuak aurkitu dituzte. Lourdes Herrasti Aranzadiko kidea arduratu da indusketa zuzentzeaz.

"Pendiente genuen lana eta konpromisoa zen indusketarena, eta lortu dugu. Hori da niretzat legeagintaldi honetako opari handiena: hemen dagoen jendean ateratzea, kolunbarioan sartu eta benetako errekonozimendua egiteko", azpimarratu zuen Bigurik.

1937 eta 1941 urteen artean, 225 pertsona zendu ziren, gutxienez, Urduñan ezarritako gerrako presoen kontzentrazio-esparruan eta espetxe zentralean

Auzolan deialdia

Urduñako Udalak auzolan deialdia zabaldu zuen indusketa lanetan laguntzeko, eta lanek iraun bitarteko bost egunetan erantzun zabala jaso dute. Aranzadiko kideekin batera 25 herritar baino gehiago aritu dira boluntarioki deshobiratze lanetan ekarpen boluntarioa egiten.

“Auzolan deialdia zabaldu genuen eta oso erantzun ona jaso dugu. Herritarrek prestutasun eta gogo handia adierazi dute eta eskertzekoa da”, azaldu du Itziar Bigurik. "Gainera, auzokide asko hilerrira etorri dira aurkitzen ari zena bertatik bertara ikustera, eta hori ere garai hartan Urduñan zein hemendik kanpo gertatutakoa ezagutzeko modu bat da".

Duintasunaren kolunbarioa

2014an aurkitutako hilotzak gordetzeko Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu zuten iragan uztailaren 28an, hilerriaren kanpoaldean. Gerra Zibileko eta frankismoko 15 biktimaentzako

atseden lekua da kolunbarioa: Espetxe Zentralean hildako eta 2014an deshobiratutako 14 biktimak eta San Pedro mendiko lubakietan aurkitutako beste biktima bat. Kolunbarioak, ordea, biktima gehiagoren gorpuak gordetzeko tokia du, eta behin ikerketa amaituta, bertan gordeko dituzte azken astean deshobiratutako gorpuzkiak ere.

Iñigo Arregi artistak eginiko Duintasuna eskulturak gorpuzten du monumentua, eta hainbat informazio panel ere daude, Urduñan Gerra Zibilean zein frankismoan bizitakoen inguruko datuekin.

“Pendiente genuen lana eta konpromisoa zen indusketarena, eta lortu dugu. Legealdiko opari handiena da hau: hemen dagoen jendean ateratzea, kolunbarioan sartzea eta benetako aitortza egitea”

Aurrera begira

Udalak azken aurkikuntzen balorazio oso positiboa egin du. “Aurkikuntza historikoa izan da eta memoria historikoa berreskuratzeko beste urrats bat”, azpimarratu zuen hiriko alkateak. Azken egunetan hilerrian egindako lanak goraipatu eta Eusko Jaurlaritzatik, Gogora Institutuaren deshobiratze programaren bidez, zein Memoria Demokratikoaren Ministeriotik jasotako dirulaguntzak eskertu ditu ere tokiko gobernuak.

Duela hamar urte baino gehiago ekin zion Urduñak memoria historikoaren berreskurapenaren aldeko ibilbideari, baina oraindik ere lana dute aurretik.

Aranzadi Elkartea deshobiratutako gorpuzkiak identifikatuko ditu orain, ADN froga deserdinak baliatuta. Prospekzio gehiago ere egingo dituzte etorkizunean Espetxe Zentraleko gainerako biktimak non lurperatuta dauden argitzeko.

herriz herri

Aiaraldea

Eskualdeko langileak dira guztiak eta kartzela zigorrei ez ezik, isun ekonomikoei ere egin beharko diete aurre. Otsailaren 23an atxilotu zituzten auzipetuak, Laudioko Tubacex enpresako lantegiaren atarian gertatutako protestetan.

36, 21 eta 14 hilabeteko espetxe zigor eskaerak Tubacexeko grebaren harira

Otsailaren 23an istiluak izan ziren Laudioko Tubacexeko lantegiaren aurrean. **Iñaki Montes**

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Tubacexeko hiru grebalariren kontrako eskaera fiskalak egin dituzte Fiskaltzak eta akusazio partikularrak. Fiskaltzak 21 hilabeteko espetxe zigorra ezarri nahi dio langile bati, eta 14 hilabetekoa beste biri. Akusazio partikularrak, ordea, 36 hilabeteko kartzelaldia eskatu du beharginetako baten aurka. Horrez gain, isun ekonomikoak ere proposatu dituzte.

Hiru grebalariak lanuztearen 9. egunean egindako protestan atxilotu zituen Ertzaintzak. Egun horretan, lantegiko sarrera oztopatu zuten hainbat beharginek, zuzendaritzaren autobusari pasatzen ez uzteko. Istiluak berehala hasi ziren, eta oihartzun handia izan zuten irudiek.

Hiru atxilotu

Lehen istiluekin batera, grebalari bat eraman zuen atxilo poliziak. Horri 14 hilabeteko espetxe zigor eskaera egin dio fiskalak, agintaritzaren aurkako erasoa leporatuta. Zehazki, ertzain bati ostikoak eta ukabilkadak ematea egozten diote, eta zenbait lesio eragitea. Agenteak bost eguneko baja hartu zuen.

Horrez gain, poliziaren erlojuari 480 euroko kalteak sortzea ere egotzi diote. Langilearen aurkako isunak 560 eurokoak dira, lesioengatik eta ordulariagatik. Aiaraldea Komunikabidea langilearekin harremanetan jarri da eta guztiz ukatu ditu akusazioak.

Goizean, geroago, Ertzaintzak beste grebalari bat atzeman zuen. Fiskalaren bertsioaren arabera, langile horrek bi ertzain bultzatu zituen istiluen kontrako furgonetaren aurka, bortizki. Biek izan omen zituzten lesioak. Agente batek astebetez hartu zuen baja eta besteak, aldiz, 62 egunez. Fiskaltzak 14 hilabeteko espetxe zigor eskaera egin dio agintaritzaren aurkako erasoagatik, baina akusazio partikularrak, bi ertzain salatzaileen izenean, eraso bikoitza leporatu dio. Horrek esan nahi du 18 hilabeteko bi zigor ezarri nahi dizkiotela grebalariari, hau da, hiru urte baino gehiago guztira.

Isun ekonomikoei dagokienez, fiskalak eskatu ditu 1.120 euroko zigorra lesio arinak sortzeagatik, gehi 150 euro astebeteko baja hartu zuen poliziarentzat eta 3.772 euro 62 eguneko baja hartu zuen agentearentzat. Akusazio partikularrak 1.200 euroko eskaera egin du lesio arinengatik, 490 euro astebeteko bajagatik eta 4.340 euro 62 eguneko baja dela medio.

Atxiloketak arratsaldera arte luzatu ziren otsailaren 23an, eta beste grebalari bat ere atxilotu zuen Ertzaintzak. Kasu horretan, agintaritzaren kontrako erasoa eta erresistentzia egotzi dizkio fiskaltzak, 12 eta 9 hilabeteko espetxe zigor eskaerak, hurrenez hurren. Delitu arinengatik 3.300 euro inguruko isun ekonomikoari egingo dio aurre langileak.

Behargin honekin ere mintzatu da Aiaraldea Komunikabidea eta langileak uste du akusazioa zentzugabea dela. Hasteko, zigor gehiena agintaritzaren kontra erasoa egiteagatik delako. Bere ustez, atxiloketaren bideoan bertan ikus daiteke beharginak ez zuela Ertzaintzaren kontra jo, eta alderantziz izan zela.

Horrez gain, langileak uste du ironikoa dela erresistentzia egoztea, besoan behin betiko lesioa eragin baitzion poliziak atxilotzean eta, horregatik, hain zuzen, mugitzen zen eskuburdinak jartzen zizkioten bitartean.

Akusazio gehiago

Otsailaren 23ko atxilotuak 8 hilabete iraun zuen grebaren lehenengoak izan ziren, baina ez bakarrak. Zehazki, lau urte eta zazpi hilabeteko kartzela zigor eskariak egin ditu fiskalak martxoaren 25ean egondako istiluen harira salatutako hiru gazteren kontra. Nabarmentzekoa da gazte horiek ez zirela ezta atxilotuak izan, gero heldu zitzaizkien salaketak etxera.

Halaber, martxoaren 25eko liskarrak ez ziren hain larriak izan, gutxienez, otsailaren 23koekin alderatuta. Gogoratu beharra dago otsailaren 23an Ertzaintzako zenbait sindikatuk baimena eskatu zutela berriro gomazko pilotak erabiltzeko, 15 agentek zauriak izan zirela argudiatuta.

babestutako edukia

Hitzen, ekintzen eta errimen eztanda.
Herri bat BERRIAren kulturaren plazan.

Izan BERRIAlagun
6 hilabetez 50 euroan
eta eraman
BERRIAren agenda opari

Asteko ikuspegia

Eguneko ikuspegia

Bietako bat aukeran

Berria.eus/berrialaguna

* Abenduaren 20 arte • (0034) 943-30 43 45

berria zuk badakizulako

herriz herri

Aiaraldea

Duela 6 urte baino 564 euro gehiago ordaintzen dira alokairu berri bategatik

1.178 alokairu fidantza daude indarrean eskualdean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

1.178 alokairu fidantza daude indarrean Aiaraldeko zortzi udalerritan (Amurrion, Arakaldon, Artziniegan, Aiaran, Laudion, Okondon, Orozkon eta Urduñan). 519 eurokoa da alokairuen hileroko bataz besteko errenta, 6,5 eurokoa metro karratu bakoitzeko.

Datu horiek jasotzen ditu Euskoko Jaurlaritzaren Alokairu-merkatuaren Estatistikaren (AME) 2022ko 1. hiruhilekoko txostenak. Dokumentu horren arabera, EAEko hileko bataz besteko errenta 703,3 eurokoa da, eta Araban 627,3 eurokoa. Hau da, Aiaraldeko alokairuak bataz bestekotik nahiko behera daude, Donostialdean eta Bilbo Metropolitarrean pilatzen baitira errenta garestienak.

Aiaraldeari erreparatuz, Laudiok du bataz besteko errenta altuena, eta Urduñak baxuena.

Laudion daude alokairu berri garestienak bataz beste, eta Urduñan merkeenak

Arrankudiaga-Zollo, aldiz, Bilbo Metropolitarreko estatistikan sartuta dago, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrien kategorian. Kategoriako horretako errentaren bataz bestekoa 631,1 eurokoa da. Hala ere, kontuan hartu behar da multzo horretan Bilbo inguruko beste hainbat udalerri ere sartzen direla, eta horrek eragin nabarmena izan dezakeela bataz bestekoan.

Duela 6 urte baino gehiago

Errenten bilakaerari lotutako ondorioak ere atera daitezke txosteneko datuei erreparatuta. Aurtengo lehen hiruhilekoan eginiko kontratuek 524,1 euroko errenta ezarri dute bataz beste. 2016an, aldiz, bataz besteko hori 476,8 eurokoa zen. Hau da, orain alokairuan sartzen den pertsona batek duela 6 urte baino 47 euro gehiago ordainduko ditu, bataz beste (564 euro urteko).

Aiara

Kexaako monumento multzoa erosteko prozedura abiatu du Foru Aldundiak

Hainbat eraikinek osatzen dute Kexaako monumentu multzoa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Arabako Foru Aldundiak Kexaako monumento multzoa erosteko prozedura abiatu du. Dominiken kongregazioa da eraikinaren jabea, eta 2,7 milioi euroren truke salduko dio erakunde publikoari 90.000 metro karratuko eraikin multzoa.

Gentza Alamillok aste honetan bertan jaso du informazioa Ramiro Gonzalez Ahaldun Nagusiaren eskutik. Aiarako alkatearen aburuz, "legealdiko albisterik onena" izan da. Alamillok balioan jarri du eraikin guztia erakunde publiko baten eskuetan egotea, eta nabarmendu du hori dela hasieratik bilatu dutena.

Gobernuburuak gogoratu du jabeek legealdi hasieran jarri zutela eraikina salmentan, baina euren asmoa prezio onena eskaintzen zuenari ematea zela. Gauzak hala, Alamillok positiboki baloratu du eraikina azkenean esku publikoetan amaitzea.

Alkateak Aiaraldea Komunikabideari adierazi dionez, momentuz ez dago monumento-multzoaren erabilerarako plan zehatzik, baina aurreratu du espazioa bisitatzeko aukera egongo dela berriz, ordutegi finko baten baitan.

Balio handiko ondarea

Hainbat eraikinek osatzen dute Kexaako monumentu multzoa, eta balio handiko ondarea du. Alde batetik, jauregia dago, Aiaratarren leinu-etxea izan zena. Berari lotuta daude beste hiru eraikinak: San Joan Bataiatzailearen komentua, Adatseko Andre Mariaren elizaren kapera eta dorrea eta San Joan Bataiatzailearen eliza.

herriz herri

Arakaldo

Euskararen alde aktibatzeko aldarria nagusi Arakaldon

Egun osoko egitaraua antolatu zuten Arakaldon. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Euskararen Eguna ospatu zuen abenduaren 3an Arakaldon, egun osoko egitarauarekin. Euskaraldiaren biharamunean ere herritarrak euskararen alde aktibatzeko beharra azpimarratu zuen kontseiluak. Abendauren 17ra begira jarri da Euskalgintza Kontseilua orain. Izan ere gazte topaketa egingo du Faktorian.

Arrankudiaga-Zollo

Enplegua sustatzeko elkarlana Bakiolako industriagunearekin

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arrankudiaga-Zolloko Udalak eta Bakiola Industriaguneko ordezkariek akordioa sinatu dute gaur elkarlana abiatzeko. Zehazki, Industriaguneareren aldetik Amancio Iglesias lehendakariak eta Fidel Nistal jabeen komunitateko administrariak jarri dute euren sinadura hitzarmenean. Txutxi Ariznabarreta alkateak ordezkatu du Udala. Adostu dutenaren arabera, Udalak 24.246,53 euroko diru-laguntza bideratuko du Bakiola Industriaguneareren Hobekuntza eta Egokitzapenetarako Ekimen Planera eta, aldi berean, Ekintza Planean aurreikusita dauden jarduetarako ordenantza fiskaletan jadanik indarrean dauden hobariak mantentzeko konpromisoari eutsiko dio.

Bere aldetik, Industriaguneak adostu du Bakiolako enpresek euren lanpostuak betetzeko lan-eskaintzaren bat dutenean, horren berri emango diotela Udalari, lanpostu bakoitzaren ezaugarri zehatzekin. Horrela, erakundeak 15 eguneko epean herritarren artean zabalduko du lan eskaintza, aukera lehentasuna izan dezaten.

Horrez gain, jasotako dirulaguntzarekin egiten dutenaren berri emango diote industria eremuko arduradunek Udalari.

herriz herri

Laudio

Greba Vidralan bost langileren kaleratzea salatzeko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abenduaren 7an eta 9an greba egin zuten Vidralako langileek "konpainiaren kaleratzeak eta lan-harreman txarrak salatzeko". Horrela adierazi zuen Enpresa Batzordeak greba deitzeko oharrean. "Vidrala enpresak (Laudio) enpresako langile bat kaleratu berri duela jakinarazi du. Horrekin, dagoeneko bost langile kaleratu dira azken hilabeteetan", azpimarratu dute.

Enpresa Batzordearen aburuz, kaleratzeko arrazoiek "ez dute inolako sinesgarritasunik", eta justifikatu gabeak dira. ELA sindikatuak enpresaren jarrera salatu du: "Komunikabideetan albiste onekin, bere onura handi eta etengabeekin eta planta berriak erosiko dituela iragarriz ateratzeko ohitura duen enpresa honek, gehiegikeriaz tratatzen ditu bere langileak, eta beldurra kaleratze arbitrario eta justifikaziorik gabekoen bidez ezartzen du".

"Gure nahia da Vidralak hausnarketa bat egitea, ez gaitezen berriro hemen egon", aldarrikatu zuten burututako mobilizazioetan. Horrez gain, gaineratu zuten zuzendaritza ez dela Lan Hitzarmena aplikatzen ari kontratazio berrietan.

Okondo

Indarkeria matxistaren aurkako jarduera ugari garatu dituzte Okondoko Eskolan

Azaroan zehar egin zituzten jarduerak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Indarkeria matxista izan dute hizpide Okondoko Eskolan azaroan zehar. Hainbat jarduera egin dituzte hezkuntza zentroan, Urtxintxa Eskolak dinamizaturik.

Alde batetik, lanketa egin dute ikasleekin, "aniztasuna, bizikidetza eta harremanen hobetzea" sustatzeko. Ipuinak, jolasak eta gorputz adierazpena landu dituzte horretarako.

Bestetik, jangelako hezitzaileekin eta irakasleekin ere aritu dira, "hezkidetzaren begirada" zabaltzeko. "Horrekin, hezkuntza komunitatean hezkidetza ahalik eta modu integralenean txertatzea izan da helburu", azaldu dute Urtxintxako kideek. "Horretaz gain, irakasleekin ere hezkidetzari ikuspegi feministetatik heldu zaio, zeinetan arlo ezberdinen inguruko hausnarketa egin den eta praktika hezkidetzaileak irakaskuntza jardunean inplantatzearen aldeko apustua bultzatu den".

Gurasoekin lanketa

Bukatzeko, gurasoekin ere egin dituzte dinamikak. Rol eta estereotipoak izan dituzte hizpide, eta horiei lotutako komentario matxistak identifikatu dituzte. "Teoria eta praktika uztartuz, indarkeria matxistaren adierazle diren hitz, esaldi eta komentarioak lantzea izan da helburu, hauek bai hezkuntza komunitatean eta baita herrian lantzeko asmoz eta honi buruzko kontzientziazioan eragiteko".

Bideo batean bildu zuten eginiko lan guztia, eta iragan azaroaren 25ean sareratu zuten.

babestutako edukia

Tecoel enpresak 238 eguzki-plaka instalatu berri ditu Orozkoko Torresar zerrategian. Azpiegitura berriak %60ko autokontsumoa eskaintzen dio lantegiari. Torresarrek urteak daramatza erregai ekologikoekin lanean. Besteak beste, pelleta ekoizten dute bertan, etxeetako berogailuetan erabiltzeko.

“Eguzki-plaka berri hauekin Aiaraldeko baliabideak optimizatzeko apustuan berresten gara”

Tecoel enpresaren laguntzaz eguzki-plakak instalatu dituzte Torresar enpresan. **Maderas Torresar, Tecoel**

Orozkon finkatutako enpresa familiarra da Torresar, zur nobleak zerratzen espezialista. Egungoa, duela 70 urte baino gehaigo lantegia zabaldu zuen familia beraren laugarren belaunaldia da.

Torresarrek 1947an ekin zion bideari, Pagomakurreko tailer txiki batean. Handik zortzi urtera, 1955ean, Orozkoko Torrezar auzoan finkatu zen, eta bertan jarraitzen du gaur egun ere.

Zuraren zerraketa izan da enpresaren eginkizun nagusia urte luzez; upelak edota habeak egiteko egurra landuz, besteak beste. Denboraren poderioz, eta garaiek hala eskatuta, negozioa dibertsifikatzen joan dira eta asko dira gaur egun Torresarren berezitasunak: paketatzea, biomasaren ekoizpena, zuraren lehortzea... Erregai ekologikoen aldeko apustuan berretsiz zerrautsa eta egurrezko-txirbilekin sortutako pelleta ekoizten dute ere, etxeetako berogailuetan erabiltzeko.

Eguzki-plaka berriak

Energia berriztagarrien beharrizanaz kontziente urrats berri bat eman du Torresarrek. Ingurugiroa zaindu eta behar ekonomikoei erantzuteko plaka fotoboltaikoak jarri dituzte enpresaren azpiegituran. Instalazio-elektrikoetan aditua den Tecoel enpresa arduratu da eguzki-plakak jartzeaz.

Guztira 238 eguzki plaka dira Torresarreko teilatutik fabrika osoa hornitzen dutenak, eta 100kW-ko potentzia eskaintzen dute. Torresarreko arduradunek azaldu dutenez instalazio berriak fabrikaren energia-autokontsumo tasa %60an kokatzen dute, eta soberakin energetikoak egonez gero sare-elektrikora igortzen dute. “Gure lan egiteko modu familiarrean aurrerapauso berria da honakoa”, adierazi dute Torresarreko kideek. “Eguzki-plaka berri hauekin eskualdeko baliabideak optimizatzeko apustuan berresten gara. Tokikoari lehentasuna eman diogu beti Torresarren, bai lantzen ditugun materialen aldetik, baita gurekin jardunean dauden langileen aldetik ere”.

Guztira, 238 eguzki plaka dira Torresarreko teilatutik fabrika osoa hornitzen dutenak

TORRESAR TIENDA
TECOEL

tecoel.es
maderas-torresar.com

elkarrizketa

“Hezkuntza eta lan merkatuaren arteko zubian itsuon irisgarritasuna eta eskubide berdintasuna aldarrikatu nahi ditugu”

ANDER CORNEJO (Gallarta, 1993) eta **MAIALEN SOLAUN** (Laudio, 2000) Aurrera Begira elkarteko kideak dira. Gazteak eta itsuak edo ikusmen urridunak hezkuntzan zein lan munduan integratzeko kolektiboa sortu dute.

Testua eta argazkia
Izar Mendiguren Cosgaya

Aurrera begira elkartea sortu duzue. Nolatan?

Ander: Elkartegintza oinarri hartuta, itsuen kolektiboa indartu nahi dugu. Egia da ONCEk hainbat alor hartzen dituela barne, baina kolokan edo alboratuta daude beste batzuk. Lan munduari eta hezkuntzari dagokionean, itsuontzako zail dago kontua. Horregatik, Gipuzkoako Begiris eta Arabako Itxaropena elkarteekin batera, Aurrera Begira mugimendu eta elkartea sortu dugu, gazteak eta itsuak elkartzeko. Hazten gabiltza, eta ezagutaraztea nahi dugu. Hezkuntza eta lan merkatuaren arteko zubian itsuon irisgarritasuna eta eskubide berdintasuna aldarrikatu nahi ditugu.

Gazteak eta itsuak izatea da zuen kolektiboko ezaugarri nagusia.

Maialen: Hori da, edo ikusmen urritasuna izatea. Gure taldean ez daude soilik ONCEn afiliatutakoak, ikusmen larritasuna duen edozein pertsonak du gurekin batzeko aukera.

Ander: 18-35 urtekoak gara, hala ere, 16 urteko gazteak ere badaude; ikasketa norabidea edo orientazioan ere eragin nahi baitugu. Euskal Herri mailako eragilea izatea nahi dugu. Gure esperientzia pertsonaletik atzetik datozenak lagundu nahi ditugu.

Maialen: Gazteak orientatu eta lagun ditzakegu, badakigulako zer nolako beharrak ditugun. Nire ustez, garrantzitsua da, adibidez, Anderren eredua.

Zertan eragin dizue egunerokoan ikusmen urritasuna izateak?

Ander: Lan munduan eta hezkuntzaren alorrean sekulako zailtasunak ditu gure kolektiboak. Ikasketa motaren orientazioan, edota lan-motaren irteerei dagokienean, errealistak izan behar gara. Egia da gauza batzuk egiteko zailtasunak izan ditzakegula, baina beste kontu batzuetarako ez. Orientatzailearen falta sumatu dugu, lan merkatuan irekiera egokiena topatzeko orduan, batik bat.

Maialen: Horrez gain, profesionalen artean ere garrantzitsua da ikastetxeetako orientatzaileak laguntzea. Zer nolako aukerak eman ahal dizkigute? Nire kasuan, ikastetxe batean egin nituen praktikak, eta ez zuten jakin nola lagundu (zentroa oniritzia emateko prest zegoen, baina ez ziren nire praktikaldian laguntzera konprometitu). Ikasketak bukatzean ez dugu erreferentziak emateko inor lan munduan, edota ikasten jarraitzeko. Eredu eta ezagutza falta handia dago.

Ander: ONCEk, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin duen hitzarmenari esker, CRIk itsuentzako baliabideak jartzen ditu eskura. Eurek egokitzen dute ikasteko materiala, esaterako. Ikastetxeetan ez dagoenez erreferenterik, ezezagutzagatik batik bat. Horregatik, kontzientziazio kanpainak sustatu nahi ditugu.

Aurrera begira elkartearen bidez, itsu edo adimen urridunen kolektibo zein norbanakoak ikusgarritzea duzue helburu. Zer egin beharko litzateke ikasketetatik lan mundurako jauzia egiteko?

elkarrizketa

Maialen: Gizarteak uste du ONCEk laneratzen laguntzen digula. Egia da laguntzen gaituela, baina ez ikasketekin (salmenta izaten da profil ohikoena, eta orain beste desgaitasunetara zabaldu da).

Ander: ONCEren ahulgunea hori da: arlo sozialean hainbat gauza positibo egiten ditu (liburutegi digitala, tifloteknologia, ordenagailu edo pantaila irakurleak, orientazio teknikariak...) baina lan munduan defizit handia dago. Horregatik sortu dugu elkartea. Bakoitzaren ikasketak enpresetara zuzentzea falta da. Ni, esaterako, kazetaria naiz eta geroz eta gauza gehiago eskatzen zaizkigu: multimedia, prentsa oharrak idaztea, sare sozialetan edukiak zabaltzea... Enpresa askotan arazoak izan ditut horregatik, nahiz eta orain lanean egon. Nire kasuan, administrariak laguntzen nau argazkiak hautatzen, baina gainerako gauzak nik egiten ditut (eta grabaketak taldean egiten ditugu). Lantaldeak edo talde lana sustatuta lanpostuak irisgarriak izateko alternatibak sortu daitezke. Horrek, baina, egungo esplotazioa kolokan jartzen du: profil askotan pertsona batek egin behar du guztia, ez da talde lana sendotzen.

Alternatibak badaude. Ikasketa edo enpresetan borondate falta sumatu duzue?

Maialen: Nire ustez ezjakintasuna da. Lan egiterako orduan gizarteak duen ikuspegia itsuok ONCEko kupoiak soilik sal ditzakegula da. Nik Arreta Gradua dut. Nik demostratu dut arreta graduan lan egin dezakedala: teleasistentzian, nagusien egoitzetan... Orain, gizarteratzeko goi mailako gradua egiten ari naiz, eta iaz ikastetxe batean egin nituen praktikak. Irakasleak eta profesionalak asko harritu ziren nire zailtasunekin umeak nola lagun ditzakedan ikustean. Gauza batzuk ezin ditut egin, horregatik nago beti lagunduta, baina gizarteak aukerak eman behar dizkigu guk aurrera jarraitu ahal izateko.

Politika eta legediaren bidea ere ireki duzue.

Ander: Politikariekin hainbat bilera egin ditugu, Hezkuntza Lege berrian dekretu bidez aipatzeko orientatzailearen figura. Hori da epe laburrean lortu nahi duguna. Momentuz, harrera ona izan da: hiru elkarteek Nicolas Sagarzazurekin bilera egin genuen, eta Lanbideko formakuntza garapenaren zuzendariarekin ere hitzordua dugu jada. Alderdiekin ere izan gara, eta denek esan digute bide egokia ari garela egiten: harrituta geratu dira, eta miresmena azaldu dute ezjakintasun handia zutelako alde horretatik.

Lan kultura edo ikuspegia aldatu behar da, beraz?

Ander: Bai, guztiz. Nire kazetaritza profiletik abiatuta, ikus-entzunezko enpresan ez da berdina 2 edo 3 pertsona egotea. Enpresa handietan jarduteko ere badugu aukera: itsu batek gidoia, koordinazio edo ekitaldi aurkezpena egin ahalko luke, edo prentsa oharrak bidali. Pertsona bakarrak egin behar badu guztia, guretzat ezinezkoa da. Enpresa handi batean errazagoa da lantalde barruan jardutea, guztiz integratuta egon naiteke.

Maialen: Ni arlo sozialeko langilea naiz. Pausoka zentroan egin nituen Arreta Graduko praktikak, jende nagusiarekin. Memoria klasea lantzeko materialetan, ariketa ez bisualetan lagun nezakeen, beste batzuetan ez. Banakako lana sustatzeak kaltetu egiten gaitu, gauza bisualak ezin baititugu egin, eta horrek are gehiago mugatzen gaitu. Horregatik da garrantzitsua lan-taldeak mantentzea, hartu-emana edo elkarlana baita; eta gu integratuta sentituko baikara. Dena indibidiuala bada, kanpo geratu eta sentituko gara. Pertsona gisa, oso garrantzitsua da gizartean integratua sentitzea.

Ekonomiak soziala eta denona izateko, bestelako eredu bat behar du?

Ander: Bai. Borondatea eta jarrera aktiboa behar da. Guztion ardura da aurrerapausoak egitea, denok jarri behar dugu gure alea. 'Borrokatu eta ez etsi, eutsi baizik' leloari jarraitu behar diogu.

Zuekin harremanetan jarri nahi duenak, zer egin behar du?

Ander: Momentuz Itxaropena eta Aukera Berriak elkarteek badute euren espazio digitala. Guk sare sozialak eta elkartearen erregistroa eratzea bidean dugu. Taldean 17-18 gazte gaude, eta hainbat jarduera prestatzen gabiltza. Momentuz hedabideetan ezagutaraztea da gure lehen urratsa. Hau izan da gure lehen elkarrizketa, eta espero dugu gehiago zabaltzea.

'Ur Handitan' telebista saioan bere esperientzia azaldu Maialen Solaunek. **Laudio Ikastola**

kultura

Aiaraldeko Sortzaileen Katalogoa osatzeari ekin dio Kultur Faktoriak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Aiaraldeko Sortzaileen Katalogoa osatzeari ekin dio Aiaraldea Ekintzen Faktoriako Kultur ildoak (Kultur Faktoria). Eskualdeko sortzaile guztiei buruzko informazio ahalik eta osatuena biltzea izango da egitasmoaren xedea.

Auzolanean eratu nahi dute katalogoa. Horretarako, eskualdeko herritar orori luzatu diote ekimenean parte hartzeko gonbita. Formulario bat osatu dute horretarako. Galdetegi sinple horren bidez, eskualdeko edozein bizilagunek izango du bere sorkuntza lanari edota ezagutzen duen sortzaileren bati buruzko informazioa bidaltzeko aukera. Interneten ikusi eta bete daiteke formularioa.

Lehen isla, urtekarian

Laster plazaratuko dute katalogoaren behin behineko lehen bertsioa, hemendik eta igandera arte biltzen dituzten sortzaile guztiekin. Atal berezi bat izango du horretarako katalogoak Aiaraldea Komunikabideak ekoizten duen urtekarian.

Webgunea

Horrez gain, webgune bat ere atonduko du Kultur Faktoriak, eta fitxa bat atonduko du sortzaile bakoitzarekin. Aurreratu dutenez, urte amaieran zabalduko dute atarian.

Jose Arrueren eskulturaren inaugurazioarekin jo du goia margolariaren omenezko ekintzak sortak

Alberto Acero plazan jarri dute figura. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Dozenaka lagun bertaratu ziren asteartean Laudioko Alberto Acero plazara, estalkia kendu baitiote Jose Arrueren eskulturari. Nati Gomez Arruek hartu zuen hitza ekitaldian. Margolariaren ilobak aitortu du hasieran ez zitzaiola eskulturaren kokapena gustatzen, baina pozik dagoela emaitzarekin: "Josek ez luke ezer margotuko hemen, mendi eta paisaietatik urrun. Baina ez da margotzen ageri, herritarrak eta kale giroa begiratzen baizik". Lurdes Umerezek egin du eskultura, bere garaian Lamuza plazan dagoen Ruperto Urkijoren eskultura egin zuen artista berak. Eskultorea ere egon zen inaugurazioan, eta figuraren sorrera prozesua izan zuen hizpide. Bere hitzetan, "dokumentazio lana" egin zuen lehenbizi, Arrueren argazki eta bestelako dokumentuak kontsultatuta. "Eskulturaren eskeletoa" egin zuen jarraian, eta gorputza osatzeari ekin zion gero, *poliespana*, eskaiola eta zeramika baliatuta. Antzekotasun handia du eskulturak margolariarekin, baina hori ez da garrantzitsuena, Umerezen arabera: "Askotan inportanteagoa da begirada eta eskulturak zer jarrera duen".

Felix Mugurutzak agurtu zuen ekitaldia. Udaleko euskara eta kultur identitate teknikariak aldarrikatu zuen aurrerantzean Arruek "pertsonaia bat" izateari utziko diola, laudioar guztien "lagun" bat izatera pasatzeko. Ondoren, Arloteek abestu zuten, ekimena jai-giroarekin amaitzeko.

"Arrueren urtea"

45 urte bete dira aurten Jose Arrue margolaria zendu zenetik. Hori dela eta, urte osoko dinamika abiatu du Udalak, hainbat jarduera burututa: Arrueren margolanen muralak jarri zituzten urte hasieran Latiorroko pasabideko bi aldeetan, unitate didaktikoa osatu dute ikastetxeetan lantzeko eta hitzaldiak antolatu dituzte, besteak beste. Horrez gain, margolariaren hainbat obra entzutetsu jarri dituzte Kultur Etxean. Erakusketa hori ikusgai dago orain-dik, abenduaren 16ra arte.

Goya zinema sarietan egongo dira Esti Urresolaren 'Cuerdas' film laburra eta Mikel Bustamante aktorea

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Hautaketa fasea gainditu eta Goya zinema sarien XXXVIII. edizioan egongo da Esti Urresolaren *Cuerdas* filma. Espainiako zinema akademiako kideek 34 film laburren artean hautatu dute zinemagile laudioarraren lana, datorren otsailaren 11n Malagan egingo den sari banaketan egoteko.

Hain zuzen ere, fikziozko film labur onenaren kategorian lehiatuko da Urresolaren pelikula, *Arquitectura emocional 1959*, *Chaval*, *La entrega* eta *Sorda* lanekin batera. Goya sarietara iritsi aurretik, aipamen eta sari ugari eskuratu ditu honezkero Urresolaren *Cuerdas* filmak: Abycine zinema independenteko festibalean lehen saria lortu zuen eta Avilés Acción Film Festivalen film labur onenaren saria eman zioten ikusleek. Gainera, maiatzean, beste sari bat ekarri zuen zuzendari laudioarrak Canneseko jaialdi entzutetsutik.

Mikel Bustamante

Mikel Bustamantek ere aukera handiak ditu Goya sari bat lortzeko, datorren otsailaren 11ko sari banaketan. Zinemagile eta aktore amurrioarrak *Cinco Lobitos* euskal produkzioan egindako lanagatik hautatu du Espainiako Zinema Akademiak, Errebelazio-aktore onenaren kategorian.

Leire Oruetaren lana aitortua

Zuzenki hautatu ez badute ere, Leire Orueta Gomezen lana ere egongo da presente Goya sarietan. Artista laudioarrak *Modelo 77* filmaren arte departamentuan egin zuen lan, eta film horren arte zuzendaritza ere hautatu dute sariketarako.

kultura

‘Matriuska’ antzezlana azken aldiz ikusteko aukera egon zen iragan azaroaren 27an Faktorian, Emakume* Sortzaileen Zikloaren barruan. Bertan egon zen Agus Perez eta ikusitakoaren gaineko kritika artistikoa plazaratu du Aiaraldea Komunikabidean.

‘Matriuska’: sorkuntzaren bizipenak

Testua **Agus Perez**

Laudioko Aiaraldea Ekintzen Faktoria ezagutu berri dugu 'Matriuska' antzezlana han eman behar zelako aitzakiarekin. Lokal polita benetan. Kanpotik inguruko industria-pabilioien itxura dauka; baina, behin atea zeharkatuta, gauza askotarako balio duen espazio argi, atsegin eta ondo antolatu batean sartu gara, eta bisitatzen genuela plaka batean irakurri dugu Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak sari bat eta guzti eman ziola gunearen atontze eredugarriari.

Bertan burutzen diren ekimenen artean Emakume Sortzaileen Zikloa dugu, 2022an irailean hasi eta urtea amaitu arte iraungo duena. Hona hemen haren leloa: «Emakumeak ardatz, zazpi pieza, hamaika modu sorkuntzaren bizipena gorpuzteko».

Matriuska antzezlana estreinatu eta gutxira ikusi genuen Donostian, eta orain, Laudion zegoela jakitean, ez dugu dudarik egin bigarrenez ikusteko orduan. Pieza borobilak eta ausartak ez dira ugariak gure kultur panorama pobretuan, eta urrea balira bezala miretsi behar dira, gure izpiritu gaixoa ere pobretzea ez badugu nahi.

Alaitasun betean sartu dira atzeko atetik Iraia Elias eta Amancay Gaztañaga, ikusleei agur pertsonalizatuak egiten eta Bilbotik eta rritako bikote bati txantxa bereziak dedikatuz, haiek bitan edo hirutan ikusi ei dutelako obra eta, hala ere, «ez dute deus ere ulertu».

Eta ni behintzat ados nago, 'Matriuska' honetan ez dagoelako gauzak bide logikoetatik ulertzerik, bide emozionaletik baizik, hau da, erraietatik. Dantzan bezala, ez dugu argumentu zehatzik bilatu behar: abandonatu gaitezen, ordea; utzi diezaiogun gure barruko izakierreprimituari aske izaten; eduki dezagun konfiantza zoroak, burugabeak, arraroak eta, batek daki, arriskutsuak eta guzti izan daitezkeen emakume sinestezin hauengan! Zer daukagu galtzeko, bada? Ala, fede gehiagorik jarri behar dugu odola goitik xurgatzen diguten gizon- emakume trajedun horiengan?

Zeren eta, arraro itxura badute, eduki ere. Oinetaraino luzeak diren berokiak jantzita agertu zaizkigu: Iraia Elias bibote handi batez hornitua eta Amancay Gaztañaga kokotseko bizar dotore batez edertua. Lehena erlatibitatearen inguruko argibide ustez zientifikoak emanez eta bigarrena haren menpeko, oharrak akta-liburu handi batean etengabe hartzen. Desadostasun une batean, buruzagiak metro bateko txistor bat atera du bragetatik, eta morroiak hamar zentimetroko txorizoa. Beraz, buruzagia txapeldun.

Ez pentsatu, ordea, halako gauza zabarretan galduta ibili direnik, esandako hori anekdota txiki bat besterik ez delako izan, eta emanaldian zehar denetarik gertatu delako. Zer esan, adibidez, logika zeharo hotzari egindako kritikaz?; zer esan, maisuki gorpuztu dutenkomikotasun erdi grotesko erdi parodiakoaz?; zer esan, azkenik, Godoten esperoan lez goiko kontrolatzaile ezezagunarekin antigoaleko telefono batez izandako dei antzuez?

Matriuska antzezlana taularatu zuten Iraia Eliasek eta Amacay Gastañagak Faktorian. **Aiaraldea.eus**

Amaitutakoan izandako elkarrizketa atseginean –txokolate kikara bana eskaini digute ikusleoi– jakin dugu honako hau 'Matriuska'-ren akabuko emanaldia izan dela. Pena sentitu dugu, harribitxi hau ez dugulako hirugarrenez ikusiko. Baina poza ere bai, emakume sortzaile hauek, sorkuntzaren bizipenak zelan gorpuzten dituzten azaltzeaz gain, beren oraingo proiektuaren berri eman digutelako –*Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi*– eta baita ere euren hurrengoaren notizia, zehaztasunetan sartu barik, ordea.

Faktoriako ziklo honen amaiera ere aurkeztu digu Nerea Iglesias moderatzaileak:abenduaren 30ean izango da, Araialdeko emakume sortzaileen diziplinarteko ikuskizun batekin.Galdu barik, gero!

KONPAINIAK:
Kamikaz kolektiboa eta Ttak teatroa.

SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA:
Iraia Elias eta Amancay Gaztañaga.

TOKIA:
Aiaraldea Ekintzen Faktoria.

kirola

“Urte luzez egindako lan guztiaren emaitza da tontorra”

TASIO MARTIN ELORRIETA (Urduña, 2000) KARRERA METEORIKOA ARI DA EGITEN ALPINISMOAN. KATALUNIAKO MENDI FEDERAZIOKO TEKNIFIKAZIO TALDEAN EMAN DITU HIRU URTE ETA ORAIN ESPAINIAKO ALPINISMO TALDEAREKIN HASI DU IBILBIDEA ESPEDIZIOA. UDAN INDIAN EGON ZEN, INORK INOIZ ZAPALDU EZ DITUEN TONTORRETAN.

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Has gaitezen hasieratik. Alpinismoan eta goi-mendian murgildu aurretik, non eman zenituen zure lehenengo urratsak?

Familian beti izan dut lotura estua mendia eta naturarekin. Txikitatik, aita eta amarekin hamaika irteera egin izan ditugu: trabesiak bizikletan, arroila-jaitsiera, piraguismoa... 12-13 urterekin mendi garaiagoetara joaten hasi ginen, Piriniotan nire lehenengo hirumilakoak igo nituen eta eskalatzen hasi nintzen ere.

Urteak joan eta urteak etorri, gurasoekin mendira joateari utzi nion, eta lagunekin zein mendi-gidari batekin hasi nintzen alpinismoa praktikatzen eta teknifikatzen.

Paraleloki eskalada txapelketetan parte hartzeari ere ekin nion. Argi nuen etorkizunean ez nintzela horretan buru-belarri arituko, baina oso etapa polita izan zen. 2017an gainera Euskal Federazioko Alpinismo taldean sartu nintzen, eta nire formazioarekin jarraitu nuen.

Hastapen hauek, edo nire lehenengo etapa hau, Ama Dablameko espedizioarekin itxi eta borobildu genuen nolabait. Etxean beti egon da oso lotura estua Ama Dablam mendiarekin; gurasoak 1995ean egon zirne bertan, aitari motxila erori zitzaion eta behera egin behar izan zuen, eta nire ama beste lagun batzuekin batera igo zen tontorrera. Horregatik zen berezia aitarekin bertara joatea. Batxilergoa bukatutakoan urte sabatikoa hartu nuen unibertsitatera joan aurretik. Ingalaterran egon nintzen ingelesa ikasten eta espediziorako praktikatzen. Gauzak horrela 2019ko maiatzean Himalaiara joan ginen.

Etxeko kapituloa itxi eta Kataluniako Mendi Federazioko Alpinismo Teknifikazio Taldean (CTAC) sartu zinen. Nolakoa izan zen jauzia?

2019ko irailean, ikasturte berriarekin batera Lleidara joan nintzen unibertsitate ikasketak egitera, fisioterapia eta jarduera fisikoaren zientzietako gradu bikoitz bat, bost urte orotara. Granada zen neukan bigarren aukera, baina banekien Lleida eskalada paradisu bat zela, eta hona etortzea erabaki nuen.

Alpinista batzuk ezagutzen nituen hemen eta enteratu nintzen CTACen aurreko deialdia bukatu berri zela eta urte hasieran talde berria osatuko zutela, eta hautapen-probetara sartzea erabaki nuen.

“Ahalik eta tresna eta trebakuntza gehien eskaintzea da CTACen helburua”

Oso aukera ona iruditzen zitzaidan, nagusiki alpinismoa praktikatzeko jendea ezagutzeko helburuarekin. Curriculuma bidali nuen federaziora ordura arte egindako kontuekin, urtarrileko asteburu batean egin genituen frogak eta hautatu egin ninduten taldean parte hartzeko.

Hiru urteko ibilbideari ekin zenion orduan, alpinismo formazio sakona jasotzeko helburuarekin. Zeintzuk dira egindako ekintza nabarmenenak, edo jasotako nozio nagusiak?

Hiru urteetatik lehenengoa da formakuntzari gehien bideratu genuena. Formakuntza saio oso interesgarriak jaso genituen. Roger Cararach eta Marc Toralles dira CTACeko zuzendariak, maila altuko alpinistak biak eta asko ikasi dugu beraiekin. Horrez gain, beste hainbat eskalatzaile eta alpinistekin formakuntza saioak jasotzeko aukera izan dugu ere. Izotz eskaladan, eskalada artifizialean edota auto-erreskatean trebatu gara, besteak beste. Azken finean, CTACen helburua alpinistoi ahalik eta tresna eta trebakuntza gehien eskaintzea da, norberaren defizitak landu ahal izateko.

Formazio saio bat nabarmentzearren, eta berezi-ki nork eman zigun kontuan hartuta, Silvia Vidalek emandako formazioa litzake. Eminentzia bat da eskalada munduan, Urrezko Pioleta irabazi zuen iaz. Berarekin bakarkako eskaladan trebatu ginen. Bakarkako eskalada ez da oso ohikoa, eta gu ez gaude horretara ohituak. Maniobra eta tresna interesgarriak erakutsi zizkigun, oso baliagarriak.

“Mendiko Lagunaen beka jaso nuen, beti dude laguntzeko prest, eskertzekoa da hori”

Asko mugitu zarete ere, etxe inguruko Pirinioetatik hasi eta Alpeetaraino.

Lehenengo urtea formakuntzari enfokatua dago nagusiki, bigarren urtean kontzentrazio luzeagoak eta bidaia gehiago prestatu genituen; Alpeetan egon izan gara hainbatetan. Norbegiara joan ginen izotzean eskalatzeko; Rjukan zonaldean egon ginen, izotzezko paradisu bat.

Marokora ere joan ginen eskalatzera. Bidaia hura zoragarria izan zen, bi aste egin genituen Taghia inguruan, eskaladaren paradisu batean. Gure kezka bakarra hurrengo egunean zer eskalatuko genuen pentsatzea zen.

‘Babel’ bidea eskalatu zenuen Taghian, zuk bakarrik.

Oso esperientzia gogorra eta polita izan zen. Bi gau eman nituen horman 18 luze eta 800 metroko bidea osatu ahal izateko. Gogo asko nituen urrutiko horma batean bakarrik egoteko, berezia izan zen. Nire lehenengoa aldia zen horma batean bakarrik, bakardade sentsazioa izugarria zen. Mentalki beste kontzentrazio bat behar duzu, erantzukizun guztia zurea da ehuneko ehunean.

Hiru urteko ibilbidea ixteko Indiako Himalaiara joan zarete, Zanskar ingurura. Nolakoa izan da prestaketa?

CTACeko hirugarren urte osoa eman genuen espedizioa prestatzen. Hainbat aukera genituen, tartean Boliviara joatea. Azkenean, Indiako Himalaiara joatea erabaki genuen, Zanskar izeneko zonaldera. India eta Pakistanen arteko mugan dagoen

kirola

harana da Zanskar, eta duela hamar urtera arte turismora itxita egon da. Zonalde konfliktiboa da, eta oso gutxi esploratua. Horrek asko erakartzen gintuen, inork inoiz igo ez dituen mendiak eta hormak aurkituko genituelako bertan. Mundu globalizatu honetan aurkitzeko hain zaila den abentura nahi genuen guztiok, leku ezezagun batean murgiltzea.

Finantziazio bila ibili ginen bidaia egin ahal izateko. Nik Mendiko Lagunaken beka jaso nuen, beti daude laguntzeko prest eta oso eskertzekoa da. Kamisetak ere egin genituen eta oso harrera ona izan zuten.

Zer aurkitu zenuten bertan?

Oinarrizko kanpalekua montatu osteko hasierako egunak inguruan genuena esploratzen igaro genituen, Google Earth bidez tontorrak identifikatzen eta informazioa biltzen.

Gure lehenengo saiakera ia 6.000 metroko mendi bat izan zen, inork aurretik saiatu gabekoa. Buelta eman behar izan genuen, baina oso esperientzia aberasgarria izan zen. Erabakia momentuan ez zen erraza izan, baina horrelako egoerek irakaspen handiak uzten dituzte.

Bertatik jaitsi eta erronka berrien bila hasi ginen, hortik atera dira etxera ekarri ditudan bi bideak 'La gent que estimo' eta 'Txoria txori'. 'La gent que estimo' igotzea berezia izan zen, Jordirekin egin nuen eta urte zaila igaro du azkenaldian; euforiko geunden tontorrean.

'Txoria txori' bidea oso berezia izan zela aipatu duzu behin baino gehiagotan.

Bai, egindako bideetatik bereziena. Mendi ikusgarri baten argazkia aurkitu genuen Zanskarreko infromazioa biltzen ari ginela, eta zein izan zitekeen bilatzeari ekin genion Google Earth bidez.

Bi mendi ziren, bata bestearen alboan, harrizko horma ikusgarriekin. Bi taldetan banatzea erabaki genuen; ni Marcekin batera joan nintzen. Bertara joan ginen, zer aurkituko genuen jakin gabe. Egundoko horma aurkitu genuen parez pare, oso estetikoa. Pribilegio hutsa da inor egon ez den toki batean egotea.

Eskalada izugarria izan zen, egiten genuen luze bakoitza aurrekoa baino hobea zen, liluratuta geunden. Gaua egin zitzaigun eta horman egin genuen lo. Egundoko gau txarra pasa genuen, euria etengabe egin zuen. Goizean blai eginda eta hotz geunden, eta ateri zegoen arren, jaistea erabaki genuen; izan ere, hurrengo egunerako eguraldi iragarpenak ez ziren batere onak.

'La gent que estimo' Jordirekin igo ostean bigarren saiakera bat egin genuen Marc eta biok. Bigarren saiakerarako erabaki genuen horman lorik ez egitea, eta egun bakarrean igotzea. Lehenego luzeak ondo ezagutzen genituen eta azkar igo ginen. Azken zatian gauzak zailago jarri ziren, eta elurra ere hasi zuen, baina aurrera jarraitu genuen eta ilundu aurretik iritsi ginen tontorrera. Jaitsiera rapelak, ordea, gauez eta itsu-itsuan egin genituen. 'Txoria txori'(760m, 7a+) izena jarri genion bideari, nire gurasoen omenez, tontorra, aldiz, Punta Guillem Aparicio izendatu genuen duela urte batzuk hil zen Marcen lagun baten omenez.

Une berezia izango zen inork zapaldu gabeko tontorrera iristea, ezta?

Oso une hunkigarria izan zen, ezin da deskribatu, asko emozionatu nintzen. Azken finean, urte luzez egindako lan guztiaren emaitza da une hori. Bide hori guztia islatzen da tontorrean, hori da tontorrak duen gauzarik ederrena.

Marcekin bertan egoteak ere, askoz bereziagoa egiten zuen dena. Betidanik mirestu dudan pertsona izan da Marc, egundokoak egin ditu alpinismoaren munduan, eta orain nire lagun mina dela esan dezaket. Oso harreman estua sortu dugu CTACeko denboran. Argi daukat Marcekin dudan harreman eta konexio horregatik ez balitz ez genukeela gure helburua lortuko. Konfiantza osoa dut berarengan.

CTACeko etapa itxi Espainiako Alpinismo Taldean hasi zara.

Bai, otsailean egin nituen frogak eta hautatua izan nintzen. Honezkero egin ditugu topaketa batzuk, azkena Andaluzian, Sierra Nevadako errendiemendu altuko zentroan.

Oso ilusionatuta nago, talde majoa daukagu. 2024ra arte egongo naiz beraiekin.

Mikel Zabalza da gure zuzendaria, eta pasada bat da bere gisako kirolari baten gidaritzapean egotea, ziur asko ikasiko dugula.

Goian CTACeko taldea Indian, Zanskar bailarara egindako bidaian. Beste orrian: Martin 'Txoria Txori' bidean; MartinEcrins inguruan eskalatzen; Martin Montrebein eskalatzen; Ama Dabalm tontorra . **T.M.**

kirola

Gabonak
Urduñan
Abenduak 23
18:30 FAMILIA SAKRATUAREN ELIZAN
Gabonetako KONTZERTUA eta ODOLOSTE JANA
Abenduak 24
17:00 Harrera MARI DOMINGI eta OLENTZERORI
(Kalejira eta oroigarrien banaketa)
Abenduak 25
18:00 UDAL FRONTOIAN Gabonetako BERTSO-SAIOA
(Igor Elortza, Saioa Alkaiza, Peru Abarrategi eta Miren Amuriza)
Abenduak 26
ALONDEGIAN
3Dko ESKULANAK (5-7urte) eta ROBOTIKA (8-14 urte)
Abenduak 27
BITXIGINTZA (5-7 urte) eta KAMISETA tailerra (8-14 urte)
Abenduak 28
GAILETA TAILERRA (6-14 urte)
Abenduak 30
18:00-20:00 BOLATOKIAN Gabonetako BOLO LEHIAKETA
FORU PLAZAN GABON ZAHAR AURRERATUA (Oihan Vega eta beste Dj-ak)
Abenduak 28-30
11:00-12:20 / 17:00 FRONTOIAN
SASKIBALOIA DENONTZAT eta XI SANTI ZUBI MEMORIALA
Abenduak 31
18:30 FORU PLAZAN SAN SILVESTRE herri lasterketa
Urtarrilak 2, 3 eta 4
11:30-14:00 / 16:30-20:00 FRONTOIAN Gabonetako JOLAS PARKEA
Urtarrilak 3
12:00 FORU PLAZAN ERREGE MAGOEN pajea
Urtarrilak 5
18:00 ZEZEN PLAZAN ERREGE MAGOEN kalejira
Urtarrilak 6
11:00 GETXA GOI TXISTU BANDAREN kalejira
URDUÑA ORDUÑA

kirola

“Aiarako Bira irabazi nahiko nuke”

HARRI PASKIERek (Lendoñobeiti, 2007) BERE LEHENENGO DENBORALDIA EGIN DU AIARA TXIRRINDULARI ELKARTEKO MAILOTA JANTZITA, ETA HAINBAT GARAIPEN LORTU DITU. HASTEAR DEN ERREPIDEKO DENBORALDIARI EKITEKO IRRIKAZ DAGO.

Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Zure lehenengo urtea igaro duzu Aiara Txirrindulari Elkartearekin lehiatzen; nola joan da?

Oso pozik egon naiz. Espero nuen ondo egitea, entrenamenduak eta prestaketa zorrotz eraman ditut eta.

Arabako Txapelketan bigarren geratu nintzen, baita San Joseko lasterketa klasikoan ere. Araba Challenge txapleketan ere lehenengo geratu nintzen lehen urteko kategorian, eta sailkapen orokorrean hirugarren.

Hainbat lasterketatan lehenengo postua lortu dut lehenengo urteko kadeteen kategorian, eta beste hainbetse podium orokor. Aiara Txirrindulari Elkartean lehenengo urtea izateko oso gustora nago.

Noiz hasi zinen txirrindularitzan?

Betidanik izan dut gogoko kirol hau. Amurrioko taldean eman nituen eskola-kiroleko urteak, eta iaz Aiara Txirrindulari Elkartearekin lasterka egitera pasa nintzen. Profesional mailara iritsi nahiko nuke.

Entrenamenduen garrantzia aipatu duzu. Nolakoak izan dira zure prestakuntza-saioak?

Kadete mailan nago oraindik, ez gara profesionalak, baina serio hartu ditut entrenamenduak. 50 eta 60 kilometro arteko saioak egin izan ditut. Barrerilla mendatean nahikotxo estutu izan dut.

Zein da zure indargunea lasterketetan?

Eraso egitea eta mugitzea dut gogoko, tropelean aspertu egiten naiz. Denboraldian egindako lasterketa onenetarikoa Aranan jokatutakoa izan zen. Lasterketa gogorra izan zen, hasieran eraso egin nuen beste bi txirrindularirekin batera eta 60 kilometro eman genituen ihesean. Lehenengo urteko lehen postua lortu nuen, eta sailkapen orokorreko bigarrena.

Nire indargunea mendateak direla esango nuke. Lendoñobeitin bizi naiz, eta edonora joateko portu txikiren bat igo behar dut. Asko gogoko dut mendateak igotzea.

Ziklo-kros denboraldian murgilduta zaudete orain. Zelan daramazu?

Ez dut bereziki gogoko ziklokrosa, baina ondo dago, txirrindulan ibiltzeko eta entrenatzeko aitzakia ona baita. Zornotzako ziklo-krosean 6. postua lortu nuen, hori izan da ziklokrosean lortu dudan emaitzarik onena. Iragan astean Puenteviesjon egon nintzen, dena ondo zihoan, primeran ari ginen, baina katea atera zitzaidan azekn itzulietan.

martxoan berriro hasiko duzue errepideko denboraldia, zeintzuk dira zure erronkak?

Nire helburua Aiarako Bira irabaztea da. Oso motibatuta nago eta aukerak ditudala uste dut. Etapa potenteak dira, baina ondo ezagutzen ditugu errepide hauek.

Aiarako Bira irabazteko asmoa duzula diozu, zelan moldatu zinen azken edizioan?

Ondo egin nuen, baina Okondoko etapa korapilatu egin zitzaidan. Oso etapa gogorra zen Okondokoa, 10 lagunez osatutako tropel txiki bat geunden ihesean, eta helmugara iristeko 200 metroren faltan erori egin nintzen. Bigarren postua eskuratu nezakeen baina erorikoak asko atzeratu ninduen eta sailkpaen orokorrean ere behera egin nuen. Lehenengo hamar sailkatuetatik kanpo geratu nintzen.

Nola ikusten duzu taldea orokorrean?

Talde indartsua daukagu, lehenengo urteko txirrindulari berriak oso ondo dabiltza. Jon Egia da horietako bat, maila altua dauka. Ziklo-krosean Iker Colmenero oso emaitza onak erdiesten ari da. Ekhi Uriartek ere asko hobetu du. Orokorrean, talde ona daukagu gauzak ondo egin ahal izateko.

Etorkizunera begira non gustatuko litzaizuke ikustea zure burua?

Profesional mailan lehiatzea gustatuko litzaidake, eta Frantziako Tourrean lehiatzea eta irabaztea.

Zeintzuk dira zure erreferenteak txirrindularitzan?

Une honetan oso gustoko dut Renco Evenepoel. Munduko txapleketa, Espainiako Itzulia, Liejako klasikoa edota Donostiako klasikoa irabazi ditu, besteak beste. Beti dago erasoan, ikuskizun hutsa da bera ikustea, eta nik hori asko miresten dut. Pogačar eta Landa ere asko gustatzen zaizkit.

babestutako edukia

Gorobel CrossFit gimnasioko kideak dira LUIS ASENJO, PATRICIA GARCIA, PILAR FLORES eta BILALL BEN YECHOU. Gimnasioak hiru urte hauetan bizi izan duen eraldaketaren isla dira laurak, eta oraindik ere eraldaketa horretan sakontzen jarraitzen dute. Berriki bi kirol-diziplina berri txertatu dituzte: Boxeoa eta Fit-boxinga.

“Aiaraldean kirol erreferente izatea da gure helburua”

Luis Asenjo, Patricia Garcia, Pilar Flores eta Bilall Ben Yechou, gorobel CrossFiteko kideak. **Aiaraldea.eus**

Kirol-diziplina berriak ekarri dituzue Gorobel CrossFiten, zeintzuk dira kirol berri horiek?

Eskualdean erreferente izateko asmoz abiatu genuen Gorobel CrossFit proiektua, eta filosofia berdinari jarraituz bide eman diegu kirol-diziplina berriei Tologorri gune berrian. Bide horretan funtsezkoa izan zen Hajime gimnasioarekin hasitako elkarlana. Kick-boxinga izan zen gehitu genuen lehenengo kirola, eta orain beste bi diziplina gehitu ditugu: boxeoa eta Fit-boxinga. Kick-boxinga kardioa lantzeko oso kirol leherkorra eta aktiboa da, eta gainerako beste kirolekin oso konbinagarria. Boxeoa gerora gehitu dugu, jendeak hala eskatuta; izan ere, zonaldean ez da oso kirol ohikoa. Azkenik, Fit-boxinga txertatu dugu gimnasioko egunerokoan. Kirol hau kontaktu fisikoa saihestu nahi duten pertsonei dago zuzendua. Ohiko ariketa fisikoak (abdominalak, eserialdiak...) eta Kick-boxingeko mugimendu eta teknikak konbinatzen ditu kirol honek. Hori guztia, gainera, musikaren erritmoari lotuta. Oso saio intentsoak dira.

Nolakoa izan da kirol guzti hauen arteko integrazioa Gorobeleko azpiegituretan?

Oso familia polita ari gara osatzen. Hasieran Hajime gimnasiotik zetorren jendeak izan zitzakeen beldurrak uxatu ditugu, ikusi dutelako euren entrenamendu errutinak ez direla aldatu. Aldaketa positiboa izan da eta oraindik ere ari da izaten, egunetik egunera jasotzen ditugu fruituak. Ordutegi eskaintza zabalagoa dugu Gardean. Ikusgarritasun handiagoa ere lortu dugu hemen. Gainera, diziplina isolatuak izatetik urrun, CrossFitean aritzen ziren asko kontaktu kirola egiten hasi direla ikusi dugu.

Profesional berriak ere batu dituzue lan-taldera proiektuaren hazkundearekin batera.

Bai, Pilar batu da taldera Hajimeko kideen bitartekaritzaren bidez, bera da kontaktu-kiroletan entrenatzaile nagusia Bilallekin batera. Pilar eskarmentu handiko kirolaria da, profesional mailan lehiatu izan dena, eta boxeo entrenatzaile nazionala ere izan da. Proiektua aurkeztu genionean ez zuen zalantzarik izan. Oso kirol bateragarriak dira gainera CrossFita eta kontaktu-kirolak; lehenengoak ematen dizun indarra oso ondo konbinatu daiteke bigarrenean lantzen den teknika eta erreflexuekin. Hemen eskura jarri ditugun baliabideak ere oso egokiak dira horretarako. Azpiegitura zabal eta ondo ekipatuak ditugu.

CrossFitaren praktika bera ere eraldatu duzue urte guzti hauetan.

Mugi-lasai programa jarri dugu berriki abian CrossFit entrenamenduen barruan. Ohiko CrossFit saioak dira baina mugikortasun zailtasunak edo crosffitaren intentsitatea beraientzat ez dela uste duten pertsonei bideratuta. Jendeak eskatzen zigunari erantzuna emanez jarri dugu aukera berri hau herritar guztien eskura. Hizkuntza-ohiturei dagokionean ere aldaketak egin ditugu hiru urte hauetan; naturaltasunez euskaraz kirola praktikatzeko eskatu digute gure kideek eta horretan ari gara.

Etorkizunera begira eraldatzen jarraitzeko asmoa duzue?

Bai, eta beti ere filosofia berdinarekin: hemen egiten dena Aiaraldean erreferente egiten. Adin eta profil guztientzako espazioa izaten jarraitu nahi dugu. Urte hauetan aurreiritzi eta hesi asko hautsi ditugu, eta horrela jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere. Gimnasio batera etortzea bateragarria dela Aiaraldean hain gogoko ditugun airezabaleko kirolekin demostratu dugu.

Gorobel CrossFit
Laudioko Industrialdea
4-2
Laudio

@crossfitgorobel

@gorobelgara

667 52 15 42

kirola

ATLESTISMOA

Galder Hernandez lasterkaria bigarren bere kategorian, Veran

Testua
Aitor Aspuru Saez

Galder Hernandez Bergantiñosek ezusteko lorpena eskuratu zuen abenduaren 10ean Almerian. Hain zuzen, Vera Playan izan zen 10 kilometroko lasterketa. Laudioarra bigarren izan zen Beterano A kategorian (35 eta 39 urte bitarteko kirolariena) eta hamahirugarren sailkapen orokorrean. Galderrek lehenengo aldiz zapaldu zuen podiuma hiri lasterketa batean, eta balioetsi egin du egindakoa. Izan ere, lehen bost sailkatuentzat sari ekonomikoak zeuden eta, hori dela medio, maila zegoen korrikalarien artean.

Ibilbideari dagokionez, laudioarrak azaldu du 3,3 kilometrokoa zela, eta hiru aldiz bete behar zela: "Tarte azkarrak eta aldapak zituen. 180 graduko birak ere bazituen eta giroa ona izan zen. Ondo sentitu nintzen eta lasterketa ona egin nuen".

Kirol mugarri hori, dena den, zoriaren ondorioa izan da. Berez, Galder Hernandez Bergantiñosek Valentziara jo zuen abenduaren 4an hango maratoian parte hartzeko. Laudio Atletismo Klubeko beste kide batzuekin egin zuen eta bere marka murriztea lortu zuen; 2:44:25. Horren ostean, eta astebeteko oporrak zituela baliatuta, bere familiaren apartamentura joan zen, Vera Playara. Hirian egonda, irratian entzun zuen lasterketa egingo zela asteburuan eta baloratu zuen izena ematea. Zalantzan egon zen, maratoia egin ostean ez baitzekien nola erantzungo zuen gorputzak, baina, azkenean, lehiatu zen.

ATLETISMOA

Tenperatura hotza, baina giro beroa nagusi Amurrioko IV. Krosean

Igande goizean jokatu zen Amurrioko IV. Krosa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

20 lasterketak osatu zuten Amurrioko IV. Krosa. Ohi gisan, Reforreko kirolgunean atondu zuten zirkuitua, eta hosto eta lokatz artean egin zuten ibilbidea hainbat modalitate eta kategorietan parte hartu zuten 643 korrikalariek. Hala, 10:00etatik ia 14:00ak arte giro ederrean igaro zuten goiza. Izan ere, Amurrioko txapelketa ez ezik, Arabakoa ere jokatu zen.

Espero gisa, handia izan zen eskualdeko talde eta norbanakoen parte hartzea. Alabaina, Getxo, Gasteiz eta beste zenbait herrietatik ere bertaratu ziren klubak. Amurrioko Skaut taldeak, bere aldetik, txosna jarri zuten arkupeetan, edari bero zein hotzak eskaintzeko nola partaide hala laguntzaile edo animatzaileei.

Aiaraldearrak podiumean

Sailkapen osoa Oinkariaken webgunean dago eskura. Edozelan ere, eskualdeko kide ugarik zapaldu zuten podiuma, emaitza bikainak erdietsita: June Rivas Garcia-Escudero lehena izan zen Arabako txapelketan; Nahia Laso Gonzalez bigarrena Sub-20 kategorian; eta, Edu Frutosek master kategorian bigarren postua lortu zuen.

PILOTA

Goi-mailako jaialdia egon zen Aretako frontoian

Testua
Asier Amondo Gerra

Jaka eta Aranguren bikoteak ondo hasi zuten partida. Aranguren aurreko egunetan bezala fresko, eta Jakak ere pilota eskutik abiaduraz ateratzen zitzaion txinparta horrekin. Aurrean lan egiteko prest zegoen bikotea, Urrutikoetxea eta Albisu.

Urrutikoetxea eta Albisuri kosta egin zitzaien berdintzea, nahiz eta aldea ez izan oso handia. Arangurenek ere sustoa izan zuen bezala launean kolpea hartuta txokoan pilotaren bila zihoala, Aranguren ohituta ez gauzkan pilotaren batek huts egin du eta gorriek oso praktiko jokatu dute. Urrutikoetxeak pilota gehiago izan du, Albisuk menderatzea lortu du eta Jaka defentsa lanetan sartzera behartu dute.

15-15ekoaren ondoren partidaren azken partziala argia izan da 7-1eko emaitzarekin gorrien alde, Urrutikoetxea eta Albisuren alde. Hor agerian geratu da Urrutikoetxea eta Albisu hobeto iritsi direla hitzorduaren amaierara, Laudion bigarren puntua lortzeko. Urrutikoetxea-Albisu 22 Jaka Aranguren 16.

Promozio Txapelketako partidan Larrazabal eta Eskiroz nagusitu dira hasiera hasieratik. 7-0 jarri dira partidaren hasieran Zubizarreta eta Uriondoren aurka. Uriondok, Elizegiren ordez etorri denak, ez du asmatu eta pilota asko galdu ditu. Partida honetan hasiera hasieratik nagusitu dira urdinak, Larrazabal eta Eskiroz. Amaieran, Zubizarreta-Uriondo-10, Larrazabal-Eskiroz -22.

herriko plaza

Xone
Zorionak maitia! Ze ona zeure bizitza gurekin partekatzea, eskerrik askoo! Ondo pasa

Zure futbolaria ;)

Iru
Zorionak dantzaren erreginari!!! Segi bazterrak astintzen eta ingurukoak zoriontsu egiten

Pordioserxs

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu.. Urtarrilaren 18an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ZAILA

	2						8	
			5		2	7		3
	5			6		4		
		4					3	6
5	7	8					9	
6	9			2	8		4	
8					7	2		
			2		3	6	5	
	6					3		

ERRAZA

	3		7					6
4					9		8	3
	7			2	3			5
6			4					
	5				2	6		7
		4	3		5			
	6		8		4	5	3	
		3	2	5				
5	4			3	7			9

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa



Hotel Orduña Plazako zirkuitu termal bikoitzaz gozatzeko zozketa

Zirkuitu termal bikoitzaren zozketa
www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Abenduaren 23an, 15:00etan.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak
Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

HILI

Idazlea: Uxue Alberdi
Ilustratzailea: Araiz Mesanza
Argitaletxea: Elkar

Heriotzaren inguruan hamaika galdera sortzen zaizkigu, batzuk zentzudunagoak eta beste batzuk ez hainbeste. Erantzun gutxi eta galdera asko dituen ipuina da, hausnarketarako aukerak ematen dituena.

ZALDI BELTZAK ZERUAN

Idazlea: Txomin Peillen
Argitaletxea: Pamiela

kolekzio handiago baten hiru ipuin labur topatuko dituzue liburu honetan. Ipuin laburrak dira, intrigaz beteriko hiru ipuin. Herentziak, familia kontu ezkutuak, mafia, joko zikina... Denetarik topatuko dugu historia beltz hauetan.

JOLAS GUNEA

ZELAN AUKERATU JOSTAILU EGOKIA?

Jostailu bat aukeratzerako orduan, gauza asko kontuan hartu daitezke. Atal honetan gomendio batzuk topatuko dituzue jostailu egokia lortzeko.

1. HAURRAREN NAHIA ETA BEHARRA: Haurrei galdetu ea zer nahi duten, aztertu ere zertara jolasten duen egunerokotasunean. Agian ez du ezer nahi, baina, haurraren jolas librea behatuta ziur okurrituko zaizuela zerbait.

2. JOSTAILUAREN IRAUPENA: Aztertu zenbat denboraz gozatu dezakeen jostailu horretaz. Saiatu denbora tarte luzez jostailuarekin gozatu dezaketen produktuak eskuratzen. Garai ezberdinetarako balio dutenak, edo ez dutenak soilik erabilera bakarra.

3. MATERIALA: Gaur egun merkatuan milaka material ezberdinetako jostailuak daude. Argi dago material naturalek (egurra, metala, kristala...) esperientzia eta sentikortasun handiagoa eskaintzen dietela haurrei, material hilek (plastikoak) baino. Baina, ez ukatu hasieratik material hilak horregatik bakarrik, egon daitezkeelako material interesgarriak. Era berean, badaude aproposak ez direnegurrezko materialak.

4. ERABILGARRITASUNA: haurrari esperientzia interesgarri bat eskaintzeko, egokiagoak dira jolasa ahalik eta gutxien bideratzen dutenak. Hau da gauza askotarako balio duten jostailuak. Normalean oso teknologikoak diren jostailuek gauza bakarrerako balio dute eta haurrek interesa galtzen dute

segituan. Aldiz, estruktura jakin eta konkretu bat ez duen materialak, hamaika erabilera ezberdin ditu, gaur sagarra izan daiteke, bihar hegazkina eta etzi etxea.

5. ESPERIENTZIAK: Zein esperientzia eskaintzen die haurrei? Bakarrik jolasteko dira edo pertsona batek baino gehiagok jolas dezake? Euren adinarentzako egokiak dira?

6. GENERO ROLAK: Jostailu sexista ugari daude merkatuan. Ez aukeratu genero rol estereotipatuak berproduzitzen dituzten jostailuak.

Gozatu eta zerbait aukeratzekotan, zuek haurrarekin denbora on bat pasatzeko zerbaitetan pentsatu, Batzuetan hori delako soilik haurrek behar dutena.

KOKO RIKO HEZKUNTZA FAKTORIA

KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Gabonak

Abendua da, gauak luze, hotza, euria... Giroa goibel eta plazak hutsik egoten diren egun horiek etorri dira. Egun ilun hauetan negua etorri dela esateko Olentzero eta Mari Domingi etorriko zaizkigu, ilusioz beteriko zakukada batekin.

Pertsonaia hauen irudikapenaren inguruan gauza ugari esan dira, genero ikuspegitik aztertuta asko dago oraindik aldatzeko eta analizatzeko. Olentzerok eta Mari Domingik euskal kulturaren ordezkari izaten jarraitzen duten arren, gutxi dira bi pertsonai hauen jatorriaz haurrei hitz egiten dietenak. Olentzero eta Mari Domingi salmentarako marka ezin hobea bilakatu dira, opariek dute garrantzia eta ez pertsonaien atzean dagoen kultura eta usadioek. Horregatik, xantaia egiten diegu haurrei, ondo portatu daitezen. Ondo, txarto edo erdipurdi portatuta ere opariak berdin berdin dituztenean zein zentzu du xantaiak?

Gaur egun zein da aldea Olentzeroren, Errege magoen edo Bizar Zuriren artean? Globalizazio garai hauetan geroz eta gertuago dauden pertsonaiak dira jatorri ezberdina duten arren.

Gabon gaua betidanik izan da garai garrantzitsua, Ama Lurraren faseetan, aldaketa bat suposatzen duelako. Gau horretatik aurrera ,egunak gauari tartea hartzen dio. Eta hori da betidanik ospatu izan dena. Horregatik eta eguzkia etxeetara ekartzeko asmoz, egur zati handi bat sartzen zen sutara gau horretan, egunak luzatzen zituenak.

Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira, euskara ekarriko dute, negua datorrela iragarriko digute eta eguzkiak tartea hartuko diola gauari ere adieraziko digute. Euskaraz eta euskaratik egingo dute, adierazi diezaiegun gure haurrei ere berdina.

Joan-etorria

Horra trena: goian badoa, eta behean badator. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.

Bakoitzari berea

Pertsona hauek denek ekipajea galdu dute tren-geltokian. Eman bakoitzari berea.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu tren-gidari kapelu hauek handienari 1 zenbakia, hurrenari 2 eta txikienari 8 emanez.

Sudokua

	B			Z	
	U	Z		T	
Z					T
L					U
			I	B	
B	L				

Trenari BULTZI ere esaten zitzaion lehen. Ba al zenekien? Osa ezazu sudokua, BULTZI hitza osatzen duten hizkiekin (B, U, L, T, Z eta I). Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraldera

Besedko

Tim Meusen

JAIOTERRIA
REUVER (HERBEHERAK)

BIZILEKUA
URDUÑA

BIDAIAREN ZERGATIA
LANA

"Holandarrak oso zuzenak gara gure iritzia emateko"

Nola amaitu duzu Urduñan bizitzen?

Korapilatsu samarra da. Erasmusa egin nuen Bilbon, San Mamesen, eta txirrindularia nintzenez, talde bat bilatu nuen hemen lehiatzeko. Taldeko laguntzailea Urduñakoa zen eta ingurua erakutsi zidan. Asko gustatu zitzaidan. Holandara itzuli nintzen gradua amaitzera, baina hona itzultzeko eta talde profesional batean sartzeko asmoa nuen orain-dik. Karrera amaitu bezain laster etorri nintzen. Etxera bueltatzeko zorian egon nintzen; baina, zorionez, lan bat aurkitu nuen. Sei hilabetetik urtebetera, urtebetetik urte eta erdira... eta azkenean etxe bat erosi dut.

Oso ezberdinak dira Herbeherak eta Euskal Herria?

Bai, batez ere, kaleko bizitzan. Hemen arratsaldez bizitza dago kaleetan. Jaia ere oso desberdina da. Herberehetan 03:00etan amaitu egiten da eta bizikletaz zoaz etxera. Oro har, hemen irekiak zarete, baina kontu handiz hitz egiten duzue. Holandarrak, aldiz, oso zuzenak gara gure iritzia emateko. Pentsatzen duguna esaten dugu. Hala ere, zaila iruditzen zait hona egokitzea, beti izango baitzara atzerritarra. Sentitzen dut hori ez dela inoiz aldatuko.

Gabonak heltzear daude, Nola ospatzen dituzue Herebeheretan?

San Nikolasek ekartzen ditu opariak, abenduaren 25eko gauean. Haurrek tximiniaren azpian jartzen dituzte zapatak, baita San Nikolasen zaldiarentzako azenarioak ere. Bertan opariak sartzen dituzte eta txokolateak jasotzea oso tipikoa da. Hala ere, Amerikaren eraginez zerbait aldatzen ari da, batzuek orain abenduaren 25a ere ospatzen baitute.

Istorio bitxia dago San Nikolasen atzean, ezta?

Bai, Espainiatik dator, gainera. Istorioak dioenez, ondo portatzen ez bazara, San Nikolasek zakuan eramango zaitu Espainiara. Holandan polemika egon da bere laguntzaileekin, historia ofizialaren arabera Afrikako esklaboak direlako, eta horregatik mundu guztiak beltzez magortu ohi duelako aurpegia egun horretan. Orain, manifestazioak egin ondoren, aldatu egin da tradizioa, eta orban batzuk baino ezin dira margotu, tximiniatik jaistean zikindu bagina bezala. Betiko ohitura da, eta batzuentzat gehiegizkoa izan da erabakia. Niretzat, haurrentzat beldurgarriak izan daitezkeen Aste Santuko jantziak aldatzea hobe dela esatea bezala da.

HERBEHERAK

AZALERA
41.543 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
17,2 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Nederlandera, frisiera

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea, 4-8 pabilioia Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · URDUÑA ORDUÑA · Artziniegako Udala · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan · Basalarrina euskal Topagunea

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA


Kristina Turudic. Bulego-zuzendaria, Donostia.

Zure erretirorako aurreztu? Ondo azaltzen badizute soilik erabakiko duzu hobeto.

EUSKADIKO PENTSIOAK BANAKAKO BGAEA
BIZIARO AURREIKUSPEN-PLANAK

Aurreztu nahi duzu etorkizunerako? Pentsatu duzu nola? Oraindik oso gaztea zarela uste duzu? Zure aurrezkiak edonoiz eskuratzeko aukera izan nahi zenuke? Bazenekien etorkizunerako aurrezteak abantaila fiskalak* dituela? Eta aurrezteko modua zurekin eboluzionatuz joan daitekeela? Utz iezaguzu ondo azaltzen. **Izan ere, ondo azaltzen badizute soilik erabakiko duzu hobeto.**

Azaldu. Ulertu. Erabaki.

* Espainian merkaturatzen diren aurreikuspen-plan guztiek abantaila fiskalak dituzte.
EUSKADIKO PENTSIOAK BGAE-REN BAZKIDE SUSTATZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • ONDAREAREN GESTOREA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • AUDITOREA: PRICEWATERHOUSECOOPERS AUDITORES SL. Kontsultatu Partaidearentzako funtsezko datuen agiria gure bulegoetan edo https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkia/planak/aurreikuspen-planak helbidean.

LABORAL kutxa
Bada beste modu bat